



# BIRIKLETA

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak gurekin harremanetan egon ahal izateko hainbat aukera izango dituzte sortuko dugun web orrian. Lehenik eta behin, posta elektronikoa izango dugu, uneoro martxan egongo dena. Telefono bat ere jarriko dugu, baina hau laneko ordutegian soilik izango da erabilgarria.

Beti gutako bat egongo da telefono edo ordenagailuko pantailaren beste aldean, bezero guztiei erantzun pertsonalizatua emateko, pertsonen alde egiten duen erakunde bat izanik, garrantzia handia ematen diogulako giza banakoari.

Hori gutxi balitz, bezeroenganako hurbiltasuna areagotzeko beti prest egongo gara, beraz gure komunikazioa bidirekzionala da. Horrela, gure bezeroak zuzenean ezagutzeko aukera izango dugu, elkartearen eta proposatutako ekintzen inguruan dituzten iritziak ezagutuz eta dituzten iradokizun berriak kontuan hartuz beti ere gure proiektua hobetzeko.

Gainera, gaur egun ohikoa den moduan sare sozialen bidez ere gure berri izango dute, komunikabide arrakastatsuen baita. Plataforma hauetan biriketako minbiziaren inguruko informazioa egongo da eskuragarri, erabiltzaileen artean kontzientziazioa pizteko helburuarekin. Instagramek eduki atsegina sortzeko aukera emango digu. Esate baterako, antolatutako ekintzen argazkiak argitaratuko ditugu BIRIKLETA kontuan, herritarrek elkartearekin biziko dituzten uneak oroi ditzaten. Horrela, gizarteko gazte taldeak gure elkartera hurbilduko ditugu, hauek baitira esparru honetan adituenak.